



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko abuztuaren 7a

72. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Zuñigako ahate-granjako instalazioei irekitako espedienteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Jorge Oteiza Museoak jaso duen bisita kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, euskaltegien aurka egin diren erasoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Xabierko elkarretaratze jendetsuak artatzeko anbulantzien zerbitzu iraunkorra aurreikusi ez izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 9/2005 Errege Dekretua betetze aldera erabilitako irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, zaratari buruzko legea garatzen duen dekretua noiz eta nola aplikatuko den jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, larrialdietarako anbulantziak zerbitzu programatueterako eta “Iguatorio Médico” izenkorako erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako administrazio publikoen eta haien sozietate publikoen esparruan babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskariak gorde eta deuseztatzearen gaineko araubideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Monteagudoko udaletxearen berritzeari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (11. or.).
- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (18. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Zuñigako ahate-granjako instalazioei irekitako espedienteari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Zuñigako ahate-granjako instalazioei irekitako espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Zuñigako ahate-granjaren instalazioen lege egoerari buruz galdetu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1.- Zein puntutan dago gaur espediente hori?

Ingurumeneko zuzendari nagusiak emandako urtarrilaren 23ko 226/2006 Ebazpenaren bidez, José Javier Remón García jaunari 43/2006 zenbakiko zehapen-espedientea ireki zitzaion ondokogatik: jardueraren zati bat beharrezkoa den ireki-

tzeko lizentziarik gabe abian jartzeagatik eta hondakin eta isurien arloko araudia ez betetzeagatik.

Espedientearen instrukzioaldian, atzemandako hutsak eta ez betetzeak, batez ere ur-ibilgu publikoetara zuzenean egindako isuriak, delitu izan zitezkeela iritzi zen.

Ingurumen zuzendari nagusiak emandako ekainaren 1eko 1376/2006 Ebazpenaren bidez administrazio-espedientea Nafarroako Auzitegi Nagusiko Fiskaltzara bidaltzea agindu zen; hori dela eta, espediente horren izapideak eten dira fiskaltzak erabaki bat hartu arte.

Fiskaltzak, 2006ko ekainaren 8ko ofizioaren bidez, informazio-eginbideak (22/2006) irekitzearen berri eman du, eta, era berean, abeltzaintzako ustiategi horri buruzko dokumentazio osagarria bidaltzeko eskatu du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 27an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Jorge Oteiza Museoak jaso duen bisita kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berrueto Valencia andreak Jorge Oteiza Museoak jaso duen bisita kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Jorge Oteiza Museoarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Jorge Oteiza Museoa ireki zenetik, hau da 2003ko maiatzaren 8tik, 2006ko maiatzaren 31ra bitarte 119.663 lagunek bisitatu dute; Hona hemen urtez urte zehaztuta:

2003. urtean:	38.643
2004. urtean:	37.200
2005. urtean:	29.794
2006. urtean:	14.016

Hauxe bisitarien jatorria kopurutan eta urtez urte zehaztuta:

2003. urtean: 38.643

- Nafarroako Foru Komunitatea: % 51
- Euskal Autonomia Erkidegoa: % 28
- Beste autonomia erkidegoak: % 16
- Atzerriko herriak: % 5

2004. urtean: 37.200

- Nafarroako Foru Komunitatea: % 52
- Euskal Autonomia Erkidegoa: % 28
- Beste autonomia erkidegoak: % 15
- Atzerriko herriak: % 5

2005. urtean: 29.794

- Nafarroako Foru Komunitatea: % 55
- Euskal Autonomia Erkidegoa: % 25
- Beste autonomia erkidegoak: % 17
- Atzerriko herriak % 3

2006. urtean: 14.016

- Nafarroako Foru Komunitatea: % 68
- Euskal Autonomia Erkidegoa: % 20
- Beste autonomia erkidegoak: % 7
- Atzerriko herriak: % 5

Epe berean 8.389 ikaslek bisitatu dute museoa; hauexek dira Oteiza Museoaren eskola kanpainetan parte hartu duten ikastetxeak:

Hijas de Jesús. Iruña.

Isterria zentroa. Iruña.

Alaitz IP. Iruña

San Francisco IP. Iruña.

Askatasuna. Burlata.

Escolapios Iruña.

San Miguel de Santesteban. Doneztebe

Los Sauces. Barañain.

Paz de Ziganda Ikastola. Atarrabia.

Biurdana. Iruña.

Calasanz. Iruña.

Elorri. Iruña.

Esclavas Sagrado Corazón, Iruña.

Arturo Kanpion. Iruña.

Lago Mendillorri. Iruña.

Tafalla IP. Tafalla.

Berriozar BHI. Berriozar.

El Redín. Iruña.

Mendigoiti Gorraizko kontzejua. Iruña.

Ermitaberri. Burlata.

Amaiur I.P. Iruña.

Atargi. Atarrabia.

Laraintzar IP. Laraintzar.

Beriain IP. Beriain.

Jaso Ikastola. Iruña.

San Miguel de Noain. Noain.

Hilarión Eslava. Burlata.

Eunate. Iruña.

D^a Blanca de Navarra. Lerín.

N.^a Sra. del Huerto. Iruña.

Axular. Iruña.

Virgen Blanca. Uhartea.

“Navarro Villoslada” BHI. Iruña.

Gares IP. Gares

San Juan de la Cadena. Iruña.
 Erreniaga Ikastetxea. Iruña.
 Cardenal Ilundain. Iruña.
 Etxarriko Ikastetxea. Etxarri-Aranatz.
 Zubiriko Ikastetxea. Zubiri.
 Olabide Ikastola. Iruña.
 Santa Luisa de Marillac. Barañain.
 "Hegoalde" Ikastola. Iruña.
 Ursulinas. Iruña.
 San Cernin. Iruña.
 Bestelako hezkuntza zentroak:
 Iruñeko euskaltegiak
 Iruñeko Turismo Eskola
 Nafarroako Unibertsitate Publikoa
 Elkanoko RR Esclavas de la Virgen Dolorosa
 Iruñeko Ume Supergaituen Zentroa
 Iruñeko Lizardi Lanerako Ikastegia
 Nafarroako Gorren Elkartea
 Euskadiko Gorren Elkartea
 Euskadiko Down Sindromearen Elkartea
 Amurrio BHI, Araba
 Hernani BHI
 Bartzelonako Unibertsitateko Eskultura Espezializatea
 Logroñoko Arte-eskola
 Colegio Calasanz (Alcalá de Henares, Madril)
 Donostiako Arkitektoen Elkargoa
 Nafarroako Arkitektoen Elkargoa
 Bartzelonako Arkitektura-eskola

Cottbus-eko Arkitektura-eskola (Alemania)
 Luzernako Arkitektura-eskola (Suitza)
 Donostiako San Telmo Museoaren Lagunen Elkartea
 Getariako Museoaren Lagunen Elkartea
 Arabako Arte Ederretako Museoaren Lagunen Elkartea
 Bilboko Arkitektoen Elkargoa
 Zaragozako Unibertsitateko Artearen Historiako Fakultatea
 Nafarroako Aparejadoreen Elkargoa
 Baluarte Elkartea
 Gasteizko Arte eta Lanbideen Eskola
 Zarauzko Colegio Antoniano
 Maristas Ikastetxeko Gurasoen Elkartea
 Jesusen Bihotza Ikastola. Zarautz
 Sabadelleko BHI
 Madrileko Arkitektura-eskola
 Barasoain Kultur Elkartea
 Bartzelonako MNCA (Kataluniako Artearen Museo Nazionala)
 Reina Sofía Museoaren Lagunen Elkartea

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 28an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, euskaltegien aurka egin diren erasoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak euskaltegien aurka egin diren erasoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna Parlamentuko Taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin

du Donibane eta Txantrea auzoetako euskaltegie-tan izandako kalteen egileei buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez du galderan aipatzen diren gartakari-
en egileei buruzko informaziorik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseila-
ria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Xabierko elkarretaratze jendetsuak artatzeko anbulantzien zerbitzu iraunkorra aurreikusi ez izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Xabierko elkarretaratze jendetsuak artatzeko anbulantzien zerbitzu iraunkorra aurreikusi ez izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Xabierren anbulantzien zerbitzu iraunkorra jartzeko dauden aurreikuspenei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Ez da aurreikusi anbulantzien zerbitzu iraunkorrik Xabierko elkarretaratze jendetsuak artatzeko, elkarretaratze horiek ez direlako iraunkorrak.

Xabierren dauden pertsonak Nafarroako herri-tar guztiak artatzeko oro har ezarrita dauden aurreikuspenen eta dagoen sarearen bidez artatzen dira. Galderak aipatzen duenari dagokionez, artatze horrek ez dakar, normalean, inolako aldatarik larrialdietako osasun garraioaren sarean dauden aurreikuspenetan. Hala ere, elkarretaratzeen sustatzaile eta antolatzaileekin adostuta, komenigarria ikusten denean, elkarretaratzeak iraun bitartean, beharrezkoak diren ohiz kanpoko bitartekoak eramaten dira eta modu iraunkorrean jartzen dira; baita, kasua bada, anbulantziak ere.

Halaber, Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren mendeurrena dela eta, Foruzaingoaren herritarrentzako laguntza bulego bat ireki da Xabierren.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 30ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseila-
ria: Javier Caballero Martínez

Galdera, 9/2005 Errege Dekretua betetze aldera erabilitako irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak 9/2005 Errege Dekretua betetze aldera erabilitako irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du 9/05 Errege Dekretua betetze aldera erabilitako irizpideei buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein irizpide jarraitu ditu departamentuak 9/05 Errege Dekretua betetzeko?

Ingurumen Departamentuak informazio-gutun bana igorri die, 2005. urtearen amaieran eta hila-bete honetan, ekainean, 1.200 jarduera ingururi, zeinak, Departamentuak dituen datuen arabera, "lurzorua kutsa dezaketen jarduera" gisa jo baitaitezke, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuko 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Gutun horietan arau horren argitalpen eta indar-hartzearen berri ematen zen, eta jakinarazten zen jarduera horien titularrak behartuta zeudela autonomia erkidegoko organo eskudunari txosten bat aurkeztera, jarduera gauzaten den lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostena deritzona, hain zuzen ere.

Jarduerak hautatu ziren urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuko artikulua aipatuetan ezarritako hiru irizpideei jarraituz, alegia:

1. Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren CNAE-93 kodea urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuko I. eranskinean zerrendatua daukaten jarduerak.

2. Urtean 10 tona gai arriskutsu baino gehiago ekoizten, maneiatzen edo biltegitratzen dituztenak.

3. Erabilera propiorako erregai-biltegia daukatenak, batez beste egiten duten kontsumoa 300.000 litro baino gehiagokoa bada eta biltegiaren guztizko bolumena 50.000 litro edo gehiagokoa.

2.- Zer egin behar du txostenak eskatutako epean igortzen ez badira, Errege Dekretua betetzeko?

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak 9. artikuluan ezartzen duenez, errege dekretu horretan ezarritakoaren urraketeki aplikatuko zaie Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean jasotako zehapen-araubidea.

Zehapen-araubide horretan urraketa larritzat sailkaturik dago dokumentazioa aurkezteko bete-beharra ez betetzea edo aplikatzekoa den araudiak eskaturiko datuak ezkutatu edo faltsutzea.

Lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostena ez baldin bada aurkezten behar den epean, dokumentazioa aurkezteko bete-beharra ez dela bete joko da, eta beraz, urraketa larri gisa zehatu da.

3.- Zein aurreikuspen dauzka txostenen, ebaluazioaren eta emaitzen azterketa planifikatzeko?

Lurzorua kutsa dezakeen jardueretako bakoitzak prestatutako aurretiazko lurzoru txostenak jaso ondoren, Ingurumen Departamentuak haiek aztertu eta ebaluatzeari ekingo dio.

Horretarako, Ingurumen Ministerioa informatikako lanabes bat prestatzen ari da, kasuan kasuko kokalekuari loturiko ingurumen-arriskua aintzat harturik aurretiazko txostenen ebaluazio objektiboa ahalbidetuko duena.

Ingurumen Ministerioaren arabera, lanabes horren bitartez, lurzoru kutsa dezakeen jarduera bakoitzari balioespen erdi-kuantitatibo bat esleitu ahalko zaio, eta jarduera horien hurrenkera bat ezarri ahalko da, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan ezarritakoa aplikatuz erator litezkeen ondoko jarduketeki lehentasuna ematearren.

Lanabes hori erabiltzea aukeran izanen du autonomia erkidego bakoitzak, baina haietako gehienetan inplementatzeak ekarriko lukeen onura garrantzitsua litzateke txostenak ebaluatzeko irizpideak autonomia erkidegoen artean harmonizatzea.

2006ko maiatzean, Ingurumen Ministerioak autonomia erkidegoen aurrean konpromisoa hartu zuen lanabes hori ahalik eta epe laburrenean eskueran ipintzeko, eta garaiz, betiere, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan jasotako xedapenak bete ahal izateko.

Aurretiazko txostenak balioetsi ondoren, eta balioespenaren emaitzak horrela jokatzea hartarazten duenerako, Ingurumen Departamentuak txosten osagarri xehetuagoak eskatzeko asmoa dauka, Txosten osagarri horiek barrenean har lezakete lurzoruaren laginak hartzea, haiek analizatzea eta kokalekuaren deskribapen osoa egitea, eta lurzoruaren kutsaduraren norainokoa ebaluatzeko bide emanen dute, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan ezarritako irizpideei eta estandarrei jarraituz.

Azkenik, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuko III. eranskinean jasotako inguruabarretakoren bat gertatzen den kasuetan –eranskin horretan ezartzen baitira lurzoru bat kutsatutzat jotzeko irizpideak–, Ingurumen Departamentuak lurzoru hori kutsatua dagoela adierazteko administrazio prozedurari ekinen dio.

4.- Egin al du departamentuak aldez aurreko azterketaren bat 2005eko urtarriletik edo lehena gotik kutsatuta dauden edo egon litezkeen lurzoruaren egoerari buruz?

Departamentua 1995ez geroztik ari da lanean lurzoru kutsatuen arloan. Dena den, azpimarratzekoa da urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua onetsi bitartean ez zegoela lurzoru kutsatuaren legeko definiziorik; hori dela-eta, ezinezkoa izan da Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeak aurreikusitako inbentario eta adierazpen-araubidea aplikatzea. Halaber, lurzoru bat kutsatua dagoela esan ahal izateko estandar onetsirik ez izatearen ondorioz, ezinezkoa izan da Nafarroako egoerari buruzko estimazioak egitea, harik eta aipaturiko Errege Dekretua onetsi arte.

Urteotan Ingurumen Departamentuak esku hartu dueneko jarduera nagusiak honako hauek izan dira:

– 1995: Bederatzi kokaleku industrialetan lurzoruaren kutsadurari buruzko azterlanak egitea.

– 1996-1997: Aztertutako bederatzi kokalekuetan lur azpiko uren kutsaduraren jarraipena egitea.

– 1997: Lurzorua kutsa dezaketen jardueren inbentarioa egitea.

– 1999-2002: Inabonos enpresak Iruñean eta Lodosan dituen kokalekuetan lurzoru kutsatuak leheneratzea.

– 1999: CLH enpresak Iruñean duen kokalekuan lurzoru kutsatua leheneratzea.

– 2002-2006: Funvera enpresak Beran duen kokalekuan lurzoru kutsatua leheneratzea.

– 2004: Perfrisa enpresak Iruñean duen kokalekuan lurzoru kutsatua leheneratzea.

– 2004: Carbones y Destilados del Pirineo enpresak bere jarduna gauzatu zueneko Ekai herriko lur-zati batek giza osasunerako eta ingurumen-erako dituen arriskuen analisisa egitea.

– 2005: Petroliotik eratorritako erregaiak saltzen dituzten zerbitzuguneen inbentario bat egitea.

– Kutsadura-arrasto frogatuak zeuden zenbait kokalekutan eginiko esku-hartzearen gainbegiraketa egitea, eta horretan oinarriturik, ustez kutsaturiko lurzoruaren ezaugarriei buruzko xehetasunezko analisi eta azterlanak agintzea, eta ondoren, eta kasua izanez gero, leheneratzeko lan berariazkoak onestea.

5.- Zein giza- eta gauza-baliabide jarri behar ditu txostenak, ebaluazioa eta emaitzak aztertzeko?

Ingurumen Departamentuak Ingurumenaren Integrazioko Zerbitzuaren baliabideak ditu eskueran; bereziki, Kutsaduraren aurkako Aurreneurrien Atalari atxikitako langile tekniko eta administratibok; eta zehazki une honetan, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren aplikazioaren ondoriozko lanetan dihardute honako langileek:

– Kutsaduraren aurkako Aurreneurrien atalburuak

– Hondakinen bulegoburuak

– Bi goi mailako teknikariek

– Administrari laguntzaile batek

Halaber, aurretiazko txostena aurkezteko lana lurzorua kutsa dezaketen jardueri erraztearren eta, bestetik, emandako informazioaren tratamendua eta txosten horien balioespena Ingurumen Departamentuari erraztearren, zerbitzu honek kanpoko laguntza tekniko baten ardurapean utzi zuen tresna informatiko baten prestaketa, berriki erabiltzaileen eskueran ipini dena.

Kutsagarriak izan daitezkeen jardueren lanabes hori erabiltzeko honako onura hauek ekar ditzake:

– Egoerari buruzko aurretiazko txostenen formatua estandarizatzea

– Aurretiazko txostenak telematikoki eta euskari digitaletan aurkeztu ahal izatea

– Emandako datuak zuzenean Ingurumen Departamentuaren ingurumen arloko datu-baseetara inportatu ahal izatea

Etorkizunerako aurreikuspenaren arabera, aurretiazko txostenen analisi eta balioespenari dagozkion lanak, lurzoria kutsa dezaketen jardueren inbentarioaren mantentze-lana, lurzori kutsatuen adierazpena, kutsatu gisa deklaraturiko lurzorua leheneratzeko epe eta baldintzak ezartzea, lurzori bat jadanik kutsatuta ez dagoela dioen adierazpena eta lurzori kutsatuen inbentarioaren mantentze-lana, horiek guztiak Ingurumenaren Integrazioko Zerbitzuaren baliabide berekiekin egiten segituko dira, eta, behar denean, berariazko eginkizun zehatz batzuk betetzeko kanpotiko laguntza teknikoak kontratatuko dira.

6.- Prestatu al du departamentuak planen bat eta jarduketa-proposamenen bat Nafarroako lurzori kutsatuak deklaratzeko? Zein baldintzatan eta zein epean?

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak indarra hartuz geroztik, Espainiako arau-esparruan eskueran daude, lehenbizikoz, lurzori kutsatuak deklaratzeko irizpideak eta estandarrak.

Bestalde, Errege Dekretuak definitu egiten ditu lurzoria kutsa dezaketen jardura deritzaienak, eta haiek behartzen ditu egoerari buruzko aurretiazko txostena aurkeztera, eta geroago, organo eskudunak ezartzen duen maiztasunez egoerari buruzko txostenak igortzera.

Horrela, eskueran dagoen frogaturiko beste edozein informazio dela-eta (salaketak, egitateak

eta abar) egoera-txostenetan jasotako datuen ondorioz, Ingurumen Departamentuak zilegi izanen du lurzori bat kutsatuta dagoela adieraztea, baldin eta Errege Dekretuko III. eranskinean jasotako inguruabarretakoren bat gertatzen bada –eranskin horretan ezartzen dira lurzori bat kutsatutzat jotzeko irizpideak–.

Lurzori bat kutsatuta dagoela adierazten denean, Ingurumen Departamentuak lurzori hori garbitu eta leheneratzeko (saneamendua) beharrezkoak diren jarduketak egitera behartuko du, kasu bakoitzean zehazten diren moduan eta epeetan.

Azkenik, garbiketa eta leheneratze eginkizunak bukatu ondoren, Ingurumen Departamentuak adieraziko du lurzoria ez dagoela kutsatuta eman nahi zaion erabilera zehatzerako.

Gaur egun, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren garapen gisa, zeina baita Estatuko erreferentzia araua lurzori kutsatuen gaian, Ingurumen Departamentua prestatzen ari da aipaturiko Errege Dekretuan xedaturikoaren erabateko aplikazioa arautzen duten administrazio prozedurak; bereziki, lurzori bat kutsatuta dagoela adierazteari dagokiona.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 29an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, zaratari buruzko legea garatzen duen dekretua noiz eta nola aplikatuko den jakiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, zaratari buruzko legea garatzen duen dekretua noiz eta nola aplikatuko den jakiteko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Zaratari buruzko Legearen araudia Nafarroan nola eta noiz aplikatuko den jakiteko, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Noiz eta nola aplikatuko da aipatu araudia Nafarroan?

2. Zer bide erabiliko dira horretarako?

3. Udalerrientzako irizpide orokorrak ezarriko dira, edo haiek ezarritako irizpideen arabera jarduten utziko zaie?

– Azaroaren 17ko 37/2003 Legeko bigarren xedapen iragankorrak zehazten du indarreko lurralde-planeamendu orokorra egokitu egin behar zaiola legean ezarritakoari bost urteko epean, lege horren erregelamenduak indarra hartzen duenetik kontaktzen hasita.

– Aurtengo ekainaren 2an izan zen ingurumen arloko batzarrean, aipaturiko erregelamendua jasotzen duen errege dekretuaren proiektua aurkeztu zuen Ingurumen Ministerioak. Kontuan izanik testu horrek aldaketak izan ditzakeela behin betikoz onetsi aurretik, haren aplikazioarekin zerkusua daukaten neurri zehatzak une honetan hartzea itsumustukoa iruditzen zaigu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 29an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, larrialdietarako anbulantziak zerbitzu programatuetarako eta “Iguatorial Médico” izenkorako erabiltzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak larrialdietarako anbulantziak zerbitzu programatuetarako eta “Iguatorial Médico” izenkorako erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du larrialdietarako anbulantziak zerbitzu programatuetarako eta “Iguatorial Médico” izenkorako erabiltzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Ezarritako permanentzia baseetan egon ohi dira larrialdietarako anbulantziak, eta SOS-Nafarroaren koordinaziorako zentroen esanetara daude, haien eske egiten diren deiei erantzuteko;

horrela, bada, ezin dira beste ezein instantziatik mobilizatuak izan.

Garraio programaturako erabiliak izanaren inolako berririk ez daukagu.

Osasun Departamentuak ez du inolako espedienterik ireki.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko ekainaren 29an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Nafarroako administrazio publikoen eta haien sozietate publikoen esparruan babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskariak gorde eta deuseztatzearen gaineko araubideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Nafarroako administrazio publikoen eta haien sozietate publikoen esparruan babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskariak gorde eta deuseztatzearen gaineko araubideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera

egin du babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskariak gorde eta deuseztatzeari dagokionez Nafarroako administrazio publikoen eta haien sozietate publikoen esparruan dagoen araubideari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren esparruan, etxebizitzari dagozkion edozein motatako espedienteak, gainerako administrazio espedienteak bezalaxe, gordetzen dira Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legean eta aplikatzekoak diren gainerako administrazio-arauetan xedatutakoari jarraituz.

Iruñean, 2006ko ekainaren 28an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Monteagudoko udaletxearen berritzeari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Monteagudoko udaletxearen berritzeari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Monteagudoko udaletxearen berritzeari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (11. or.).
 - II. Monteagudoko udaletxearen berritzea (11. or.).
 - II.1. Obraren helburua (11. or.).
 - II.2. Gertakari administratibo nagusien kronologia (12. or.).
 - II.3. Berrikusitako kontratazio-espeditentak (13. or.).
 - III. Helburuak eta norainokoa (13. or.).
 - IV. Ondorioak eta gomendioak (13. or.).
 - IV.1. Udaletxea berritzeko obren kostua eta finantzaketa (13. or.).
 - IV.2. Aurrekontu-egozte eta kontabilitate-agiariak (15. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (15. or.).
- Monteagudoko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak (16. or.).
- Monteagudoko Udalak aurkezturiko alegazioen erantzuna (18. or.).

I. SARRERA

2005eko abuztuaren 14an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, Comptos Ganberari eskatzea "Monteagudoko udaletxea berritzeko proiektuari buruzko fiskalizazio txosten bat" egin zezan.

Eskari hori betetzeko, Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2006ko jarduketa programan aipatu fiskalizazio txosten hori sartu da.

II. MONTEAGUDOKO UDALETXEAREN BERRITZEA

Monteagudoko Udalak 1.132 biztanle ditu, eta hau du egitura administratiboa:

- Idazkari kontu-hartzaile bat; Monteagudo, Tulebras eta Barillas herriek osatzen duten udal elkarterako aritzen da.
- Administrari-laguntzaile bat; aipatu elkarterako aritzen da.
- Kontabilitate-aholkulari bat; eginkizun horiek Murchante eta Ablitas herriek osatutako udal elkarterako kontu-hartzaileak egiten ditu, Monteagudo, Tulebras eta Barillas herrietara hedatzen baititu dituen eginkizunak.
- Administrari-laguntzaile bat, 9etatik 14etara bitarteko lanaldiarekin kontratatua.

Monteagudoko udaletxea berritzeari dagokionez, hona, laburbilduta, obra horren ezaugarri nagusiak.

II.1. OBRAREN HELBURUA

Monteagudoko udaletxeak bi solairu zituen - behekoa eta lehenengo solairua-; horietako bakoitzak 137 metro koadro zituen. Eraikinaren aurreal-

dean hormigoizko arkupe bat zegoen, fatxadatik 2,2 metro irtetzen zena.

Proiektuak jasotzen duena da eraikina handitzea arkupe hori hartu arte; horrela, lehenengo solairuan administrazio-bulego gehiago izanen lirateke eta beheko solairuan portxe bat. Moldaketa horrekin, lehenengo solairuak, administrazio-zerbitzuen solairuak alegia, 25 metro koadro irabazten ditu gutxi gorabehera.

Obra proiektu hori Nafarroako Gobernuaren toki azpiegituren 2004ko planean jasoa dago.

Ondoren, proiektuaren exekuzio materiala gauzatzean, beheko solairuko eta lehenengo solairuko gainerako gelak ere egokitu ziren (artxiboa, biltegia eta talde politikoentzako bulegoak), eta eraikinaren egitura eta saneamendua ere eraberritu ziren. Proiektutik kanpoko lan horiek azaltzen dute, neurri handi batean, obra exekutatzean aurrekontuan izan den desfasea.

II.2. GERTAKARI ADMINISTRATIBO NAGUSIEN KRONOLOGIA

- Alkatearen 2003ko abuztuaren 21eko Ebazpena. Berritze obraren proiektua esleitu zuen, publikatzerik gabeko prozedura negoziatuaren bidez; lizitazioaren zenbatekoa 6.553 eurokoa izan zen. Proiektuaren barruan daude, berez, segurtasun-azterlana eta obra-zuzendaritza. Hiru enpresa gonbidatu eta 6.380 eurotan esleitu zen (%2,64 merkeago).

- 2003ko urriaren 31ko Osoko Bilkura. Honakoak onetsi ziren: proiektua, baldintza-agiria, gastua, administrazio-espeditatea eta oroitidazkia. Oposizioak helegitea jarri zuen erabaki horren aurka Nafarroako Administrazio Auzitegian, puntu hori gai zerrendan presakoa zela esanez sartu eta, oposizioaren ustez, hori ez zelako behar bezala justifikatu. Proiektatutako obren aurrekontuak 66.796,21 euro egiten zuen, eta aurreikusitako epea lau hilabetekoa zen. Laburbilduz, berritze obrak honako gastu eta finantzaketa zehatzak izan ditu:

Gastua	Zenbatekoa
Proiektua eta obra-zuzendaritza	6.380,00
Obra	66.796,21
Guztira	73.176,21
Finantzaketa	Zenbatekoa
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak	55.226,46
Mailegua	17.949,75
Guztira	73.176,21

- 2004ko otsailaren 27ko Osoko Bilkura. Obra finantzatzeko behar zen kreditua hitzartzea erabaki zen; 17.949,75 euro izan ziren, hain zuzen.

- 2004ko apirilaren 2ko Osoko Bilkuran, obrak esleitu ziren publikatzerik gabeko prozedura negoziatuaren bidez. Eskaintza bakarra aurkeztu zen, eta haren aurrekontua bat zetorren lizitazioan ezarritako zenbatekoarekin eta epearekin.

- 2004ko apirilaren 5ean, obra kontratua sinatu zen. Obraren zenbatekoa 66.796,21 eurokoa zen, eta burutze-epea, berriz, 4 hilabetekoa.

- 2004ko apirilaren 5ean zuinketa-akta sinatu eta obrak hasi ziren.

- 2004ko ekainaren 27ko Osoko Bilkuran obra osagarriak onetsi ziren, zenbatekorik gabe, nahiz eta ezarri zen ez zutela hasieran esleitutakoaren %20 gaitutuko. Publikatzerik gabeko prozedura negoziatuaren bidez obra nagusiaren kontratistari esleitu zitzaizkion.

- 2004ko abuztuaren 9a. Udalaren bulego berriak herritarrentzat ireki ziren; inaugurazio ofiziala 2004ko azaroaren 20an egin zen.

- 2004ko urriaren 29ko Osoko Bilkura. Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako ebazpenaren ondorioz, berriro onetsi ziren 2003ko urriaren 31ko Osoko Bilkuran sartutako puntuak, auzitegiak ez baitzuen uste izan presarik zegoenik bilkura hartako gai zerrendari zegokionez.

- Ondoren, 2004ko abenduaren 1ean, obraren harrera-akta sinatu zen; kostua, azkenean, 126.893,83 eurokoa izan zen.

II.3. BERRIKUSITAKO KONTRATAZIO-ESPE-DIENTEAK

Berrikusitako kontratazio-espeditenteak taula honetara ekarri ditugu; zehaztuta ageri dira kontratuak esleitzeko erabilitako prozedura, eskaintza kopurua, obrak egiteko epea eta esleitutako zenbatekoa.

Kontzeptua	Adjudikatzeko prozedura	Eskaintza kopurua	Epea	Esleitutako zenbatekoa
Obraren proiektua eta zuzendaritza	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	3	1 hilabete	6.380,00
Obra nagusia	Negoziatua, publizitadeduna	1	4 hilabete	66.796,21
Obra osagarriak	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	1	Zehaztugabea	Obra nagusiaren %20ra arte

Horiei denei aplikatzeko legea 10/1998 Foru Legea da, ekainaren 16koa, Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzkoa.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Parlamentuak eginiko eskari hori betetzeko eta Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Monteagudoko udaletxearen berritzeari buruzko fiskalizazio txostena 2006ko jarduketa programan sartu da.

Eginiko lanak xede hauek ditu:

1. helburua. Zehaztea eginiko inbertsioaren zenbatekoa eta horren finantzaketa.
2. helburua. Gastu eta dirusarrera kontzeptu ezberdinak behar bezala baimenduta, oinarrituta eta dokumentatuta dauden egiaztatzea.
3. helburua. Azterketaren helburu diren jardueri aplikatzekoa zaien legezko-tasun printzipioa zenbateraino betetzen den aztertzea.

Helburu horiek kontuan hartuta, gure lanean, lehenik eta behin, inbertsioaren kostua eta finantzaketa zehaztu nahi izan ditugu, eta horiek justifikatzeko zer kontabilitate-agiri zeuden; bigarrenik, berrikusitako kontratazio-espeditenteetan legezko-tasunaren printzipioa bete ote den zehaztu nahi izan da. Txostenari erantsi zaizkio udalaren kudea-

keta hobetze aldera komenigarritzat jotzen diren gomendioak.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Kanpo Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoriako printzipio eta arauak" aplikatu dira, ganbera honetako fiskalizazio-eskuliburuan garatutakoak.

Txostena lau ataletan banatua dago, eta horietan agertzen dira, xedeaz eta aplikatutako metodologiak gainera, ateratako ondorioak eta emandako gomendioak ere.

Azterketa-lana 2006eko maiatzaren lehenbiziko hamabostaldian egin zuten auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, gure lanetik ateratako ondorio eta gomendioak aurkezten ditugu, aurreikusitako helburuekin bat:

IV.1. UDALETXEA BERRITZEKO OBREN KOSTUA ETA FINANTZAKETA

Udaletxea berritzeko obren behin betiko kostua honakoa izan da:

Kontzeptua	Adjudikazioa	Benetako kostua	Handitzea (%)
Proiektua eta obra-zuzendaritza	6.380,00	6.380,00	-
Obra nagusia	66.796,21	126.893,83	89,97
Obrari egotzitako beste gastu batzuk	-	7.936,21	-
Guztira	73.176,21	141.210,04	92,97

Proiektuaren eta obra-zuzendaritzaren kostuan ez da aldaketarik ageri, hau da, esleitutako zenbatekoa izan dute.

Hona obra nagusiaren zenbatekoa nola banatzen den:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Aldea (%) esleitutakoarekiko
Esleitutako obra	66.796,21	-
Unitateetako desbideratzeak	13.724,66	20,55
Osagarriak	13.081,55	19,58
Aurreikusi gabeko gastuak	33.291,41	49,84
Obra, guztira	126.893,83	89,97

Obrei egotzitako beste gastuak honakoak dira bereziki: udaletxeko instalazio elektrikoak, telefonogunea eta kableak lekuz aldatzea, eta bestelako gauzatxo batzuk. Proiektuan jaso gabeko gastu txikiak dira, baina inbertsioaren kostua handitu egiten dute (1).

Laburbilduz, berritze obraren aurreikusitako eta esleitutako kostua 73.176,21 eurokoa izan zen, eta, azkenean, kostuak 141.210,04 euro egin zuen, hots, %93 gehiago. Obra osagarriak eta unitateetako desbideratzeak kontuan hartzen baditugu, desbideratzearen ehunekoak %66 egiten du.

Hasierako proiektuan zenbait alderdi jaso gabe egoteak eragin du, batik bat, desbideratzea horren handia izatea; honako alderdiok, adibidez:

- Eraikinaren egitura berri beharra, handitzea jasan ahal izateko; benetako egoera eraispena egin ondoren baino ezin izan zen ikusi.

- Handitutako zatiari eusten dioten zutabeak saneamendu sarea zegoen lekuan egokitu ziren, eta, beraz, sare hori moldatu egin behar izan zen.

Aurreko alderdi horiez gainera, komeni da, era berean, azpimarratzea proiektuaren aurrekontua 2000ko ekitaldiko prezioekin egin zela, Nafarroako Gobernuaren 2001-2003 eperako Azpiegitura Planean sartu ahal izan zedin. Obra hau, hala ere, 2004ko planean sartu zen, baino zenbatespenean 2000ko prezioei eutsi zitzaizen; horrek ere eragin du, hein batean, antzemandako desbideratzea.

Berritze obraren finantzaketari dagokionez, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan ziren aurreikusi ziren iturriak eta zein benetakoak.

Iturriak	Aurreikusia	Benetakoak	Aldea (%)
Nafarroako Gobernua	55.226,46	60.267,59	109
Zorpetzea	17.949,75	17.949,75	-
Baliabide berekiak	-	62.992,70	-
Guztira	73.176,21	141.210,04	97

Ikus daitekeenez, Nafarroako Gobernuaren finantzaketak guztirako gastuaren %43 egiten du. Hasieran ez zegoen finantzaketa berekirik aurreikusirik, baina beharrezkoa izan da gertatu diren desbideratzeak finantzatzeko.

(1) Udalak "beste gastu batzuk" kontusailari 10.751,61 euro egotzi dizkio guztira. Zenbateko horretatik, 2.815,40 euro berritze obrekin loturirik ez duten udalaren beste zerbitzu batzuei dagozkie. Beraz, kontusail horretako benetako gastuak 7.936,21 euro egiten du.

IV.2. AURREKONTU-EGOZTEA ETA KONTABILITATE-AGIRIAK

Hurrengo taulan, udaletxea berritzeko obrek eragindako gastu eta dirusarreraren aurrekontu-egozketa jaso da:

Gastuen aurrekontua	Kontzeptua	Zenbatekoa
2003	1. ordainketa (proiektua eta laguntza)	3.252,69
2004	1. obra-ziurtagiria	34.598,91
	2. obra-ziurtagiria	92.294,92
	2. ordainketa, laguntzagatik	3.127,31
	Bestelako gastuak	7.936,21
2004, guztira		137.957,35
Guztira		141.210,04

Dirusarreraren aurrekontua	Kontzeptua	Zenbatekoa
2004	Dirulaguntzen ondoriozko 1. dirusarrera (NG)	13.806,62
	NGren 2. dirusarrera	27.613,23
	Mailegua	17.949,75
2004, guztira		59.369,60
2005	NGren 3. dirusarrera	18.847,74
Guztira		78.217,34

Egindako lanaren ondorioa da berrikusitako kontabilitate-agiriekin egoki eta agiri bidez frogatzen dituztela aztertutako obrari egotzitako gastu eta dirusarrerak.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

IV.3.1. Esleipen fasea

Eginiko azterketaren ondorioa da esleipen-prozedurak, oro har, aplikatzekoa den araudiaren araberakoak izan zirela. Hala ere, honako ez-betetze hauek ikusi ditugu:

- Ez zen justifikatu zergatik hautatu zen, zehazki, hautatu zen esleipen-prozedura.
- Obra osagarrien esleipenean ez zen zenbatetsi horiek izaneren zuten kostua; besterik gabe, obra nagusiaren %20 ez zutela gaindituko adierazi zen.

IV.3.2. Exekuzio fasea

Obran gastu garrantzitsuak egin ziren kasuko lege-babesik gabe, eta, beraz, araudia urratu zen; izan ere, ez ziren beharrezko aldaketa-espeditentak tramitatu.

Obren harrera-akta 2004ko abenduaren 1ean sinatu zen, hau da, lau hilabeteko atzerapena izan

zen exekuzioan, eta ez da inon jasota ageri horren justifikaziorik eta onespen espresurik. Bulegoak, hala ere, 2004ko abuztuaren 9an ireki ziren herri-tarrentzat, eta, ofizialki, azaroaren 20an inauguratu ziren.

Eginiko lana eta iritsitako ondorioak oinarri, hona gure gomendioak; gogoan, betiere, administrazio-egitura txikia duen udal batentzako direla:

- *Egoki justifikatu behar da zergatik hautatzen den, zehazki, hautatzen den esleipen-prozedura.*
- *Kontratazio araudia aplikatu behar da, bereziki obren exekuzio-fasean; lehenbizi, aldaketa-espeditentak onetsi behar dira, kostua zenbatetsi eta beharrezkoak direla agiri bidez frogatu.*
- *Obren exekuzio-epeak betetzen direla zorrotz begiratu behar da, eta, obra horiek harrera egin aurretik ematen badira erabilera publikorako, idatziz jaso behar da zergatik gertatu den hori.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko ekainaren 20an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

MONTEAGUDOKO UDALEKO ALKATEAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Monteagudoko udaletxearen berritzeari buruz Comptos Ganberak eginiko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazio idazkia.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, 2006ko ekainaren 7an hartutako erabakiaren bidez, Monteagudoko udaletxea berritzeko obrei buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena onetsi zuen, eta udalari igorri zion azter zezan eta, egoki iritziz gero, alegazioak aurkezteko horretarako ezarritako epean.

Udala, oro har, bat dator txostenaren edukiarekin. Hala ere, zenbait alegazio egin nahi ditu txostenaren IV. atalari (ondorioak eta gomendioak) dagokionez, honakoak zehazte aldera:

Lehena. Desbideratzearen ehunekoari dago-kionez.

IV. ataleko I. puntuan –udaletxea berritzeko obren kostua eta finantzaketa–, ageri diren datuak direla-eta, udalak txosteneko datuok zehatzak direla berresten du eta horiekin bat dator.

Honakoa azpimarratu behar da, hala ere, obraren azken exekuzioaren aurrekontuan izaniko desbideratzearen ehunekoari dagokionez:

Txostenean ageri den moduan, proiektuaren prezioak 2000. urtekoak dira: hain zuzen ere, 2001-2003 hiru urteko planean sartze aldera urte horretan egin zen oroitidazki baloratukoak. Obra ez zen hiru urteko plan horretan sartu, baina erre-serban gelditu zen. Proiektua, azkenean, 2004rako azpiegituren planean sartu zen, baina 2000ko oroitidazkian zuen aurrekontu berarekin, hau da, Nafarroako Gobernuak hasieran sartzeko erabili zuen aurrekontuarekin. Horren ondorioz, ia lau urteko aldea izan zen hasierako aurrekontuaren eta obraren exekuzioaren artean, eta horrek modu negatiboan eragin zuen obraren esleipenean.

Alde horren eraginez, aurreikusi gabeko gastuen ondoriozko desbideratzearen ehunekoa handiagoa izan zen, hau da, behar bezala eguneratutako aurrekontu bat oinarri hartuta gertatuko zena baino handiagoa.

Gainera, hasierako obraren espedienteak zenbateko txikia zuenez (66.796,21 euro), aurreikusi gabeko gastuak (egiturazkoak, saneamenduak, etab.) handi samarrak izan ziren eta asko handitu zuten desbideratzearen ehunekoa.

Funtsean, azpimarratu nahi dugu desbideratzearen ehunekoa ez zela txostenean jasotakoa bezain handia izan, ezta aurreikusi gabeko

gastu berberak eginda ere, baldin eta obraren exekuzioarekin zeharkako zerikusia zuten alderdi horiek ez balira egokitu (2000ko aurrekontua erabili izana eta obra nagusiaren zenbateko txikia), horiek gehigarri bat erantsi baitote desbideratzearen ehunekoari.

Bigarrena. Hautatutako esleipen prozedurari buruz.

Txosteneko IV. ataleko 3.1 puntuan ageri denez, eginiko azterketaren ondorioa da esleipen-prozedurak, oro har, aplikatzeko den araudiaren arabekoak izan zirela. Hala ere, aipatzen du ez zela justifikatu zergatik hautatu zen, zehazki, hautatu zen esleipen-prozedura.

Horri buruz, honakoa zehaztu nahi dugu. Nahiz eta administrazio publikoen betebeharrak orokorra izan hartzen dituzten erabakiak justifikatzea, hautatutako esleipen-prozedura modu zehatzagoan ez justifikatu izana nahi gabe gertatu zen; izan ere, erabili ziren agiri-eruedetan, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioeko Departamentuaren web orritik eskuratu baitziren, ez zen halakorik aipatzen.

Hirugarrena. Aldez aurretik aldaketa-espeditentea ez onetsi izanari buruz.

Txosteneko IV. ataleko 3.2 puntuko 1. lerrokadan, obraren exekuzio fasean legeak ezarritakoa bete ote zen aztertzean, txostenean aipatzen da Monteagudoko Udalak, obren exekuzio fasean zeudelarik, ez zuela onetsi aldaketei zegokien espedienteak, horien gastua zenbatetsiz eta beharra justifikatuz. Hori zuzentzeko gomendioa ere ageri da txostenaren amaieran.

Baieztape hori, ordea, nahiz eta formalki hala xe izan zen, argitu egin behar da, obraren egokitu ziren inguruabarrak ere kontuan hartu behar baitira. Horrela, ez-betetze formal horren arrazoiak hurrengoak izan ziren; ez-betetze horrek, gainera, ez zion beste inori kalterik eragin:

A) Batetik, azpimarratu behar da aurreikusi gabeko zenbait gauza izan zirela obraren, eta lanak aurrera egin ahala agertu zirela (eta orduan baino ez). Horrelakoetan bat-bateko neurriak hartu behar izan ziren; batzuetan, aurreikusi gabe zeuden, eta, beste batzuetan, proiektatutakoaren ezberdinak izan ziren (saneamendu sarearen aldaketa eta egitura-ren moldaketa).

Egoera horiek Kontratuei buruzko Foru Legearen formaltasunetara egokitzeko, kontratazioaren aldaketa-espeditenteak tramitatu behar izan ziren kasuan-kasuan, aurreikusi gabekoak azaldu ahala. Baina txostenean jasotzen denez, udalak administrazio-egitura txikia du, eta ezin die horre-

lakoei aurre egin nahitaezkoak eta presakoak diren beste zerbitzu batzuei kalte egin gabe. Horri dagokionez, gogora dezagun udalak, obra osagarriak zirela-eta, tramitatu zuela aldaketa bat, obra nagusiaren esleipen-aurrekontuaren %20 gaindizten ez zuen zenbatekoan.

B) Aurrekoari gehitu behar zaio udalak tinko eusten ziola obrak aurreikusita zegoenerako amaituta egoteko nahiari. Abuztuaren 14a baino lehenago (herriko festak hasteko eguna), obrak amaituta behar zuten, fatxadako aldamiokak kenduta, lekua garbi, horrela plaza itxi, harmailak jarri eta plaza zezenketetarako prest egon zedin, eta festei hasiera emateko suziria bota ahal izan zedin udal-letxe berrituko balkoitik.

Aldez aurretik aldaketa-espeditenteak onetsi beharrak udalak aurreikusita zituen epeak ezin bete ahal izatea ekarriko zuen. Baina, gainera, horrek ez zuen azken emaitza aldatuko; izan ere, obra-unitate bakoitzaren beharra eta kostua erabat justifikatuta daude.

C) Aldez aurretik aldaketa-espeditentea ez onesteak Kontratuei buruzko Legea formalki urratzea eragin bazezakeen ere, horrek ez zuen beste inoren aukerengan kalterik eragin, esleipena hartu zuen enpresa lizitaziora aurkeztu zen bakararra izan baitzen.

Obra hori esleitzeko prentsan iragarritako prozedura negoziatua erabili zen, eta, gainera, jardura ekonomikoen gaineko zergan eraikuntzaren epigrafean zeuden herriko enpresei idatziz eta banan-banan luzatu zitzaizen parte hartzeko gonbidapena.

Baina ikuspuntu praktiko batetik ere, ezinezkoa izanen zen esleipen nagusia hartu zuen enpresa ez baizik eta beste batek hartzea proiektu nagusiari aurreikusi gabeko obra-unitateak,aldi berean eta espazio berean lan eginez; lan berriok proiektu nagusia zuten jatorri, obra hasi aurretik ezagutzen ez ziren egoera berriak ziren.

Horrenbestez, aldez aurretik aldaketa-espeditenteak ez onesteagatik formalki Kontratuei buruzko Legea urratu bazitekeen ere, emandako arazoiek azaltzen dute zergatik gertatu zen huts hori.

D) Azkenik, kontuan hartu behar da exekututako obra-unitate guztiak teknikoki beharrezkotzat eta erabat justifikatutzat jo direla, eta behar bezala zenbatetsi eta likidatu direla, obra-zuzendaritzaren txostenetan ageri denez.

Laugarrena. Exekuzio-epetegi dagokionez.

Txosteneko IV. ataleko 3.2 puntuko 2. lerrokadan aipatzen da bulegoak noiz ireki ziren (2004-08-09), ofizialki noiz inauguratu ziren (2004-11-20) eta obren harrera-akta noiz sinatu zen (2004-12-01); eta txosteneko azkeneko lerrokadan gomendatzen da obren exekuzio-epetegiak betetzen direla begiratu behar dela, eta, obra horiek harrera egin aurretik ematen badira erabilera publikorako, idatziz jaso behar dela zergatik gertatu den hori.

A) Horri dagokionez, azpimarratu behar da obrak, berez, 2004ko abuztuaren 9rako amaituta zeudela. Baina ez soilik obra nagusiak, baizik eta baita obra osagarriak eta aurreikusi gabekak ere.

Horrek esan nahi du exekuzio-epetegiak betetzea eska daitekeena baina zorrotzagoa ere izan zela. Eta erakusten du, batetik, esleipena hartu zuen enpresak eginiko ahalegin profesionala, eta, bestetik, obra-zuzendaritzak eta udalak obraren segimenduan izan duten zorrotzetasuna; udalarentzat, herriko festak zirela-eta, epea betetzea, esanenez, bereziki garrantzitsua zen.

B) Egoera arrunta izan bazen, obrak ematean behin-behineko hartuko ziren.

Hala ere, gure kasuan, herriko festak zirela-eta, obrak erabilera publikorako atzerapenik gabe eman baziren ere, behin-behineko harrera atzeratu egin zen; izan ere, aldeek (kontratatik, obra-zuzendaritzak eta udalak) aztertu eta ebatzi egin behar izan zuten obra-unitate bakoitza zeri egotzi azken ziurtagirian, hau da, erabaki beharra zegoen lan bakoitza obra nagusiari zegokion, obra osagarria zen edo aurreikusi gabekoa.

Txostenean jasotzen den moduan, espeditentean ez zen idatziz jaso zergatik obrak harrera egin aurretik eman ziren erabilera publikorako. Baina, beste behin ere, izan zen horretarako arrazoirik; udalak ez du, hain zuzen ere, administrazio-egitura nahikorik horrelako jarduketara osagarriak egiteko, eta, gainera, uda garaian egokitu zen hori (festak eta langileen oporrak).

Ondorioa.

Aurreko guztiagatik ulertu behar da udalak, dituen bitarteko eta aukeren heinean, zuzen jokatu duela udal-letxe berritzeko obren fase guztietan, lehenetsia eman diela eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioei obraren kudeaketan, eta arauen justifikatu gabeko ez-betetzirik ez duela egin.

Monteagudon, 2006ko ekainaren 12an

Alkate-udalburua: José M^a. Vázquez Royo

MONTEAGUDOKO UDALAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Monteagudoko udaletxea berritzeko obrei buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari aurkezturiko alegazioak jaso ondoren, behin betikotzat jo da txostena aurkeztutako alegazioekin.

Iruñean, 2006ko ekainaren 20an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko uztailaren 3an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (18. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (18. or.).
- III. Iritzia (19. or.).
- IV. Finantzen egoera-orriak (20. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen bidez sortu zen eta 2002. urtean hasi zen jardunean.

Zuzenbide publikoko entea da, nortasun juridiko propioa du, eta, objektibotasuna eta independentzia bermatze aldera, administrazio publikoeko mendekotasunik gabe dihardu bere eginkizunetan, gaitasun osoarekin eta autonomia organiko eta funtzionalarekin.

Jardunerako behar dituen gastuak eta dirusarrerak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko aurrekontuetan sartu eta erregistratzen dira, aurrekontuko programa berariazko batean.

Plantillako lanpostu guztiak hutsik daude. Hona 2005ean zehar kontseiluaren zerbitzuan aritu diren langileen zerrenda:

Kontratatuak:

- Legelaria, Nafarroako Gobernuako funtzionarioa, zerbitzu eginkizunetan.
- Administrazio publikoko teknikaria (arlo juridikoa), 2005eko abendutik aurrera.
- Ikus-entzunezko komunikazioko goi-mailako teknikaria.
- Administraria, 2005ko urtarrilaren 31ra arte.

Behin-behinekoak:

- Kudeatzailea, 2005eko martxotik aurrera.
- Lehendakariaren idazkaria.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2006rako duen jarduketa-programaren barruan sartu da "Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua, 2004ko ekitaldia" fiskalizazio txostena.

Lan honek ondoko helburuak ditu:

- 1. helburua. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzeak 2005eko ekitaldian egindako eragiketarako behar bezala islatzen dituela egiaztatzea.
- 2. helburua. 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren isla egiaztatzea.
- 3. helburua. Fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezko tasun printzipioa bete ote den egiaztatzea.

Ikus-entzunezkoen Kontseiluak bere kontabilitatea du; ez da, ordea, aparteko programa gisa sartzen Nafarroako aurrekontu orokorretan, baizik eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren programa gisa.

Metodologiari dagokionez, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, Comptos Ganbera honek erabili ohi dituen auditoria prozedurak eta programak erabili ditugu, bere Auditoria Gidan jasota dituenak eta Espainiako Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriarako onetsiriko arau eta printzipioei jarraituz garatuta daudenak.

Azterketa-lana 2006ko maiatzean egin zuen auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

III. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2005eko ekitaldiko aurrekontua aztertu dugu. Kontseiluaren ardu-

rapean egina da, eta txosten honetako IV. atalean jaso dugu.

Eginiko lanetik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen da:

III.1. AURREKONTUAREN BETETZEA

2005erako aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala jasotzen du ekitaldi horretan egindako jardura.

III.2. ONDARE-EGOERA

Egoera-balantzeak behar bezala agertzen du 2005eko abenduaren 31ko finantza- eta ondare-egoera.

III.3. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren jardura ekonomiko eta finantzarioa legezatasun printzipioari jarraikiz egin da.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko ekainaren 27an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

IV. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**IV.1. 2005eko EKITALDIKO GASTUEN ETA DIRUSARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera

Izena	Hasierako kreditua	Kreditu aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindutakoa
1. Langile gastuak	239.823,00	-30.000,00	209.823,00	166.828,74	163.525,78
2. Gastu arruntak, ondasunak eta zerbitzuak	169.070,00	30.000,00	199.070,00	186.743,55	164.770,57
3. Finantza-gastuak	30,00	0,00	30,00	20,90	20,90
4. Transferentzia arruntak	7.557,00	0,00	7.557,00	6.600,00	6.600,00
6. Inbertsio errealak	114.040,00	0,00	114.040,00	49.003,26	33.982,12
Gastuak, guztira	530.520,00	0,00	530.520,00	409.196,45	368.899,37

Dirusarreraren kapitulu ekonomikoen arabera

Izena	Hasierako aurrekontua	Kreditu aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitorturiko eskubideak	Kobratutakoa
4. Transferentzia arruntak	416.480,00	0,00	416.480,00	374.397,35	374.397,35
5. Ondare-dirusarrerak	0,00	0,00	0,00	2,60	2,60
7. Kapital-transferentziak	114.040,00	0,00	114.040,00	49.280,58	38.572,35
Dirusarrerak, guztira	530.520,00	0,00	530.520,00	423.680,53	412.972,30

IV.2. EGOERAREN BALANTZEA 2005eko ABENDUAREN 31n

AKTIBOA

Kontzeptua	2005
IBILGETUA	76.869,26
IBILGETU MATERIALA	55.567,31
202 Eraikuntzak	11.824,87
205 Aitzariak eta tresneria	13.860,89
206 Informazioa prozesatzeko tresneria	28.390,16
208 Bestelako ibilgetu materialak	1.491,39
IBILGETU EZ-MATERIALA	21.301,95
218 Bestelako ibilgetu ez-materiala	21.301,95
ZORDUNAK	10.708,23
430 Aurrekontu korrontean aitorturiko eskubideen zordunak	10.708,23
FINANTZA-KONTUAK	51.767,92
570 Kutxa	150,72
571 Bankuak eta kreditu-erakundeak	51.617,20
AKTIBOA, GUZTIRA	139.345,41

PASIBOA

Kontzeptua	2005
ONDAREA ETA ERRESERBAK	76.869,26
100 Ondarea	76.869,26
Epe laburreko zorrak	62.476,15
400 Aurrekontu korrontean aitorturiko betebeharren hartzekodunak	40.297,08
ZORRAK ENTITATE PUBLIKOEKIN	22.179,07
475 Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kontzeptu fiskalengatik	7.045,24
476 Foru Ogasun publikoa hartzekodun, kredituen itzulketagatik	14.484,08
477 Gizarte Segurantza hartzekodun	649,75
PASIBOA, GUZTIRA	139.345,41

IV.3. EMAITZEN KONTUA ETA EMAITZEN BANAKETA

2005eko ekitaldiko emaitza arrunten kontua

ZORRA		HARTZEKOA	
166.828,74	Langile gastuak	Transferentzia arruntak	374.397,35
186.743,55	Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	Ondare-dirusarrerak	2,60
20,90	Finantza-gastuak	Kapital-transferentziak	49.280,58
6.600,00	Transferentzia arruntak		
63.487,34	Aurrezkia (emaitza positiboa)		
423.680,53	Guztira	Guztira	423.680,53

Emitza doitua

ZORRA		HARTZEKOA	
63.487,34	Ekonomia eta ondare emaitza	Ondarea (inbertsio garbi aktibatuak)	49.003,26
		Ekonomi eta ondare emaitza doitua	14.484,08
63.487,34	Guztira	Guztira	63.487,34

2005eko ekitaldiko emaitzen banaketa

ZORRA		HARTZEKOA	
14.484,08	Ekonomi eta ondare emaitza doitua	Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketako hartzekodun	14.484,08
14.484,08	Guztira	Guztira	14.484,08



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	